



KUTXA Enplegatuen Elkarteak	Xendazaletasun atala
129. zka. Ignaziotar Bidea 4. etapa	Albeniz-Alda/2019-02-23

Xendazale adiskideok:

2019ko egutegi berri honen lehen etapa Albeniz eta Alda arteko ibilbideari dagokio, Lautadatik Harana/Valle de Aranara; zehatz esanda, Alda herritxoan bukatuko dugu.

2001eko apirilaren 8an izan ginen hemen Alda eta Narkue arteko zeharkaldia zela-eta, orduan "lagun" batzuek adarra jo eta ziria sartu nahi izan ziguten eta... ia-ia lortu ere bai! Baina ordudanik denbora askotxo igaro denez, bazkalosterako utziko dugu.

Albenizetik San Romanera, eta hemendik, Atauko mendaterako igoera utzita, Bikuña mendaterantz joko dugu, bertatik igaro ginelarik Urbasa (Kanpina) eta Opakua mendate arteko etapa egin genuenean 2013ko abenduaren 15ean, "Bost Euskal Hiriburu" elkartu genituen bira hartan.

Gero, Peña Roja edo Haitz Gorri gailur txikitik igaroko gara, eta handik gutxira gailurreko bidea utzi eta goi-ordoki edo mesetan sartuko gara. A-2128 zeharkatuko dugu eta aurrerago A-3114ra irtengo gara. Hemendik Mendate Berriraino, eta mendate honetatik haranera jaitsi ahal izango gara.

Berehala iritsiko gara Uribarri-Harana herriraino, bertan bi baseliza daudelarik: Andramari eta San Kristobal. Kilometro bat baino gehixeagoko ibilia egin ondoren, gure amaierara, Aldara, iritsiko gara; Harana udalerriko kontzejua eta Kanpezuko-Arabako Mendialdea Kuadrillakoa da Alda.

Animo mendizaleok, natura zain dugu eta !!!

Ibilbidea: Albeniz-Alda

IBIBIDEA: AIZENZ-ALUA											
Beharrezko denbora							5,00 ordu				
Goranzko desnibel metatua							592 metro				
Beheranzko desnibel metatua							385 metro				
Zeharretara egin beharreko distantzia							18.670 metro				
	Ertain	1		Orientazioa	2		Joan-etorria	1		Esfortzu	3
	a								a		

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 bus-geralek.) eta Pio XII.aren plaza (24/27 bus-g.)
Aurkezteko ordua	07:40 (Bilbo plaza) eta 07:45 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua	07:45 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	XXXXXXX jatetxea.
Prezioa	32 euro

Izena emateko azken eguna: 2019-02-21eko 12:00etan

Oharra: b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

b/ Eguraldiaren iragarpenaren arabera, ibilaldia aldatzeko aukera izango dute antolatzaileek.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

